

Donostian, Diputaniñoan, bildu dira, Aingeru Irigaray jauna buru legez, Mitxelena, Villasante, Lojendio, Lekuona, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Zabala, Zugasti, Etxeandia, Etxaniz, San Martin, Zubikaray, Artola, Valverde, Loidi, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu deuskun ofizio bat irakurri da. 1962.urteko berrogetaamar milla pesetak kobratu geinkez eta itanduten dabe iztegi lanak zelan doazan. Irigoyen jaunak diño kobratu dirala pesetok. Erantzun bekio iztegiaren gaiñean jakin gura dabena esanez.

Ernani-ko Ayuntamentuak bialdu deuskun ofizio bat irakurri da. Erri aretan egin zan Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusian sari batzuk emotea erabagi eben eta orren barri emoten da bertan. Txapelketa orretan Joakin Mitxelena Oyartzun-goia gelditu zan txapeldun eta Jose Migel Iztueta "Lazkao txiki" bigarren.

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla peseta emon ditu bertsolarien txapelketetarako.

Euskalerriko bertsolarien azken txapelketa nagusia Abenduaren 30-ean egingo da Donostiako Astoria Teatroan. "Centro de Atracción y Turismo"-k artu dau bere kontu jaiia prestataren lana eta Euskaltzaindiak txapelketea egitearena. Arrue jaunak diño irabaziaren erdia emongo deuskuela.

Irigoyen-ek diño Jesus Mari Arenaza urgazle jaunak Mungian teatro talde bat sortu dauela eta Manuel Ziarsolo-n *Gogozar* obrea gertu daukiela emoteko. Prest dagoz Bilbora joateko Euskaltzaindiak urtero egiten dauen jaira. Urtarrillaren 13-an egin leiteke Arriaga Teatroan. Diño gaiñera Bilboko Jesuiten kolejoan euskal esamiñea egin eben neska mutikoai irabazi zitezuan sariak emoteko aukera ona dela. Alan egin bedi.

Bertso papelen sariketea erabagi bear zan sariak Abenduaren 30-eko jaiian partietako. Baiña zeregin asko egongo dala egun orretan eta geroago egin bedi beste jai bat. Beraz, badago oraindiño astia erabagia artzeko.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.